

GRADU AMAIERAKO LANA

MADRIL: XIX-XX MENDEKO ALDAKETA URBANISTIKOA

ZABALGUNEA ETA GRAN VÍA


EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

HISTORIAKO GRADUA

HISTORIA GARAIKIDEKO SAILA

2015/2016 IKASTURTEA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Tutorea

Jose Maria Beascochea

Ikaslea

Edurne Santamaría Echeverría

Laburpena

Lan honetan Historia Urbanoaren ikuspuntutik Madrilek jasan dituen aldaketa nabarienen prozesu eta arrazoiak aztertu nahi izan dira, XIX eta XX. mendeetan zentratuz. Honetarako, aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboak argi islatzen duten (edo hauen ondorio diren) bi adibide aukeratu dira: Castro Plana (1860), Zabalgunearen eraketa; eta Gran Vía-ko erreforma edo sorrera, XX. mendearen ateetan. Bien arteko erlazio eta eraldaketa horiek gizarte berri batean amaituko dute, hiri berri batean integratua. Hau izango da laneko hildoa: nola bata bestean eragiten duen eta zein den honen ondorioa, gaur egun fisikoki ikus dezakeguna hirian bertan.

Hau ulertzeko, hainbat faktore ditugu, bi mende hauetan emango direnak.

Gehienbat garaiko mugimendu demografikoak aztertzen dira, eta hauek aldi berean eragin zituzten aldaketa estrukturalak; hala nola ekonomiaren azpisektoreetan eta hauen erritmoan, bertako gizartearen gaineko eragina, neurri sozialak, administrazioaren papera (aldatzen joango dena baina beti esanguratsua izango dena, inplikazio edo honen faltagatik)... Honekin guztiarekin batera, hiriaren papera dugu. Batetik migrazio masiboaren (gizarte estruktura aldatzen da industrializazioarekin eta landa exodoarekin) helmuga bezala, eta bestetik Estatuaren hiriburu bezala, zentralizatzen joango dena.

Ekonomiaren aldetik, eraikuntzaren sektorea garrantzitsua izango da protegonista lan guztian zehar. Honek ezarriko du modernizazioaren erritmoa eta intentsitatea kasu askotan, aldaketa horren pausuak markatuko ditu. Segregazioan izango duen eragina eta papera ere zuzenki erlazionatua dago, azken batean ikusiko dugu nola faktore hau izango den helburuetatik aurrera atera zen bakanetakoa izango zela. Egungo hiri- gizartearen banaketan ere eragina utziko du (Salamankako auzoak adibidez klase altuentzat izaten jarraitzen du). Ez dugu ahaztu behar sektore hau udalaren eraginpean egongo dela baita ere, lege eta abarren bitartez. Honela, batzuetan udalak trabatu egingo du eraikitze- erritmoa, nahiz eta gero “irekiera” bat emango den.

Aldi bakoitzak bere aldaketa duenez, baina batez ere bi mende hauetan emango denez sistema guztiaren enklabearen aldaketa, garrantzizkoa da garaiaren hautaketa. XIX: mendean emango da landa exodoa adibidez, eta industrializazioarekin batera (nahiz eta Madril ez baldin bazen izan esanguratsuki industrial -gogoratu eraikuntzaren garrantzia-), hiriaren funtzionamendua aldatuko da. Bestetik, XIX. mendean sartzean,

modernizazio bat ematen da, barneko erreforma batekin probestuko dena. Zentroa berbalorizatzen da; baina ez etxebizitzetan, lehen ikusten dugun moduan, baizik eta klase ertain eta altuentzako zerbitzuekin. Tertziarizazio ikaragarri bat ematen da Gran Vían. Honetan Guda Zibilaren eta Errepublikaren paperak aztertuko ditugu, erritmo eta bertako sinbologia ulertzeko. Sinbologia horrekin ere sortzen dira botere-eremuak (Teelfonica), gaur egun hare argiago ematen dena (multinazionalen presentzia, Inditex adibidez), ez soilik Madrilen baizik eta mundu osoan.

Hitz- gakoak: Madril; Gran Vía, Zabalgunea; segregazioa; demografia; urbanismo.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Madril XIX. mendean: Castro Plana, 1860.....	9
2.1. Aurrekariak	9
2.2 Morfologia	11
2.3. Iparraldea: Chamberí eta gizarte plurala.....	13
2.4. Ekialdeko Zabalgunea: Aristokrazia eta goi-burgesia.....	15
2.5. Hegoaldeko Zabalgunea.....	18
3. Madril XX. mendean: Gran Vía.....	22
3.1. Klase ertain urbanoa eta Espazioaren tertziarizazioa	24
4.2. II. Errepublika eta Guda Zibila.	26
4. Konklusioak	29
5. Bibliografia.....	32
6. Anexoa	34

1. Sarrera

Gratu Amaierako Lana moldeatzen hastean, honekin ez zuen batere zerikusirik nire ideiak. Berlin eta Madrilan arteko eboluzioaren konparaketa batetik (biztanleria eta estentsioekin lotuagoa segregazioaren eboluzioarekin baino), hiriburu kastizoko datu eta grafiko zehatz ezberdinen arteko konparaketa oso batera pasa nintzen. Bi ideia hauek praktikara eramatea kaotikoa zenez ordea, ereduaren bitartez transformazio batzuen azalpena ematea erabaki nuen. Beraz, segregazioarena Zabalgunearekin, eta modernizazioarena Gran Vía-rekin. Bi ereduaren arteko lotura bat egitea da helburua batetik, eta bestetik, nola gaur egun ere aldi honetako eraginak ikus ahal diren fisikoki.

Nire kasuan, datu zerrendak baino, bibliografiaren garrantzia handiagoa azpimarratzekoa izan da. Ez dira lehen mailako datuak zuzenean lantzen (erroldak, kontuak...), baina bai datu horien aplikazioa eraldaketa hauetan. Datu hauen interpretazioen gaineko lanak ugaritu dira hazken hamarkadan, batez ere tesi moduan, gerora publikatu direnak. Kolaborazioak ere anitzak izan dira esparru ezberdinetako autoreen artean, honek bi espazio -hiri- ezberdinen gaineko konparazioak egitea errazten duelarik.

Laburki ikerketa mota honen historiografia aipatzea komeni da. Espainia mailan aipamena egin ondoren, Madrilgoan zentratuz. Historiografia espainiarraren hasierak ezagutzeko, italiarrak izan zuen eragina ikusi behar da. Espainian lehen korronea 1970an agertuko da, baina honen aurretik 60ko hamarkadan honen aurrekin bat aurkitzen dugu. Italiar historiografiaren kutsua du, arazo tipologiko eta morfologikoetan zentratzen delako. Joera hauek Chueca Goitia bezalakoek kritikatu dituzte ordea, hiri fisikoaren gaineko arreta ez zaintzeagatik (arkitektura, adibidez).

Dena dela, esan nolabait ia beti hiri- historiak mugak dituela, espezifikotasunean murgiltzen da, hiriaren arabera eta besteetatik alderatuz. Azken hamarkadetan indartsuagoa agertu da. Hiriaren historia baino, landaren historia dena ere badugu. XVIII. mendean landa eremua purutasunaren parekoa da, hiria berriz gauza negatiboekin lotzen da. Urbanista modernistek, marxista sobietikoek... polarizazio hau ezabatzen saiatuko dira (azken kasuan, landa eremuan integratutako hirien diseinuak aplikatzen saiatzen dira eredu sobietar batzuk. Hauei *desurbanistas* bezala deritzaie¹. Dena dela, historia urbanoan hiriak denboran zehar transformatzen diren sistemak

¹ Madrilan Ciudad Jardín dugu eredu bat.

bezala ikusten dira. Aldaketei ematen zaie garrantzia: fisikoa (eraikitzeak), gizartearena (non bizi den, estratifikazioa), hiriaren integrazioa, izan duen estruktura ekonomikoa... Hiriaren kontzeptua, bere aldetik, aldatu egiten da leku eta momentuaren arabera.

Madrilgo historiografiaren kasuan, esan daiteke martxan jarri zela orain dela berrogei urte jada, zehazki 70 eta 80ko hamarkadetan, inbestigazio akademikoek garrantzizko maila bat hartu zutenean.

Aurretiko hiriaren kronistek utzitako informazioari jarraitu zioten, eta burgesia eta elite berriaren sorrerarekin, Iraultza Liberalarekin, gizarte erlazioak aztertzen hasiko dira Angel Bahamonde Magro “*El horizonte Económico de la burguesía isabelina*” eta Julián Toro Méridarekin “*Burguesía, especulación y cuestión social en el Madrid del siglo XIX*” esanguratsua. Erlazio sozialez gain, demografia ere ikertuko dutenak agertzen dira: Antonio Fernández García, kasu. Inmigrazioaren kasuan, Carmen Sarasúa da garrantzitsuenetariko bat, inmigrazioa lan- merkatu lokalekin lotu zituen . Azkenik Gloria Niela Cristóbal dugu, hiri- ekonomiaren joan- etorrietan zentratu zena “*Los sectores mercantiles en Madrid en el primer tercio del siglo XX*” liburuarekin, 1985an. Kulturaren arloan, Jesús Martínez Martín dugu esanguratsuenetariko bat. Bere tesian sozializazio moduak aztertzen ditu Madrilen

Politika dugu gizarte berriarekin batera aztertu zena, nahiz eta arazo bat egongo den. Ia beti, Madril estatuaren hiriburu bezala azalduko da eta hiria ez da aztertuko hainbeste udal-ikuspuntu batetik, baizik eta estatuarekiko paperan gehiago zentratuz. Hau gizarte eta ekonomia alorrean ere aplikatzen da. Azken kasu honetan ez zen identitate bikoitz horren arazoa, baizik eta gehiago estentsio- arazo bat, eje zentralizadorea zela eta.

Autoreen artean Javier Tusell, Sisinio Pérez Garzón eta Manuel Espadas Burgos ditugu, azken biek milizia nazionalaren gaineko ikerketak egingo dituzte -zibilez osatutako politizia herrikoi bezala deskribatu dezakeguna, liberala zena non eta lehen garaietan burgesia lokala izango den bertako partaide (José Lak berea propioa sortuko du ejerzito frantsesaren orde). José Ramón Urquijo bestetik, 1854ko Iraultzaren gainean jardun zen “*La revolución de 1854 en Madrid*”-ekin, 1984an. Michel Ralle, Antonio Elorza eta Santiago Castillok langileen mugimenduak aztertuko dituzte, azalduz nola beraien arteko bigarren banaketa bat ematen den, metodo eta teoriaren aldetik emango dena. Santos Juliá sartuko da mugimendu kolektiboetan lehen aldiz,

zeinaren gainean lan teoriko bat idatziko duen “*Madrid, 1931- 1934. De la fiesta popular a la lucha de clases*” liburuan, Urquijok argitaratu eta urte berean.

Historiatik at, gorantz zihoazen hainbat espezializazioetatik ere interesa handitu zen hiriaren gainean, hala nola arkitektura eta urbanismoa. Aldaerak aztertuko dituzte XIX. mendean, gehienbat Zabalguneak eragindakoak eta ondoriozko hiri burgesaren sorrerak izan zuen eragina. Hemen sartuko genituzke Antonio Bonet Correaren bezalako ikasketa teknikoagoak, gerora hiri planteamendua eztabaidatzera ekarriko duena. Arkitekturaren aldetik, gizartearekin lotura bat egiten saiatzen dira Clementina Díez de Baldeón bezalako autoreak, klase edo estratu ezberdinekoen etxeen ezaugarriak aztertuz “*Arquitectura y clases sociales en Madrid del siglo XIX*” lanean, 1998an.

Ikusten dugu nola hiriburuaren estruktura eta prozesuen gainean hainbat inbestigazio- bide irikitzen dira, momentu berean non alor batzuk garatzen hasten diren (hamarkada hauetan hasiko dira Historiaren beste adar batzuk protagonismoa hartzen, emakumeena edota gutxiengoarena, adibidez). Esanguratsua da, bestetik, nola hemen zititutako liburu asko oraindik erabilgarriak izan diren, nahiz eta lan berri eta aktualizatuak dauden.

XX. mende bukaeran kokatzen gara gutxinaka, garrantzitsua izanik Bahamonde Magro eta Otero Carvajalek 1986-89 bitartean “*La sociedad madrileña durante la Restauración 1876-1931*” eta “*Madrid en la sociedad del siglo XIX*” lanak. Bi lan hauek beste ikerketa- lerro batzuen sorrera eragingo du .metodologia ezberdin batekin-, eta bestetik arlo honen gaineko informazio eta jakinduria oinarrituko da. Hemen kokatzen ditugu Rubén Pallol Trigueros, Borja Carballo Barral eta Fernando Vicente (beraiena izan da gehien erabili dudana liburua lanean, “*El Ensanche de Madrid: Historia de una Capital*”).

Oyónek bere artikuluan esaten duen moduan², gertakizun historiko guztiek testuinguru fikoan (urbanoan) ezartzean zentzua hartzen dute, gizarte bat ulertzeko espazioa erabiltzea beharrezkoa da. Bartzelonako kasua erabiltzen du segregazioa ulertzeko eta azaltzeko. Periferietan adibidez, migranteen jokaera radikalizatu egiten da txiroagoak direlako, fisikoki zentrotik aldentuta daude eta honek eragiten duena, Madrilen bezala, hirian parte hartzeko aukera galtzea da. Kasu konkretu honetan

² Oyón, J.L., Serra Pemanyer, M. (2010). “El espacio no es inocente”, *Historia Contemporánea* (39), 387-401. orr.

anarkiaren gorakada da ondorioa. Vallecasen eta ateneo libertarioekin -checak- gertatzen den berdina da ia. Hiri- historia ikertzen da langileen lokalizazio eta konportamendua oinarria bezala hartuz.

John k. Walton autorearen azpimarratzekoa da³, espainiar “urbanismo”, hiri- historia kontzeptuak eta aldizkariaren joerak azaltzen ditu, nola zinea, demografia, hiri- plangintza... beharrezkoak diren. Azpimarratzen du nola demografia zehatz horren interpretazioak egiteko joera dagoen, tesietan batez ere, hiri zehatz batean zentratua bakoitza. Euskal Herriko kasuan Portillaren taldearen garrantzia dugu. Bestetik, Guda Zibilaren kasu partikularrak ere aipatzen dira, estatu eta hiri mailan ondorio zuzenak eragingo dituenak. Zabalguneen fenomenoaren ere, batez ere hiriburukoa, ikuspuntu ezberdinetatik lantzen joan da, ikusi dugun moduan.

Jada mikrohistoriaren zantzuak asko garatzen dira eta gizabanakoen adibideak erabiltzen dira prozesu handiagoak azaltzeko. Datu hauen erabilera gizarte barruko loturak aztertzeke ezinbestekoa izanen da eta zantzu soziologiko zein antropologikoak nahiko begi- bistan geratzen dira.

Nire kasuan azken aldi honetako idazleak erabiltzen saiatu naiz gehienbat kasurako eta aldirako onak iruditu zaizkidalako, bai eta aldi berean berrienak zirelako (argitalpen gehienak eta tesi gehienak 2005-2015 bitartean argitaratu dira). Hala ere, erabilgarriak izan zaizkit hasierako lanak ere.

Amaituz, esan hirigintzaren historiaren kasuan beraz, gizarte aldaketa prozesuen teoriak direla azpimarratzekoak, bai ekonomi aldaketetan eta sozial- politikoan. Hau guztia beharrezkoa da ulertzea aldaketa urbano batekin batera, sistema batean non Erregimen Zaharretik Estatu Liberalerako pausoak ematen hari zen.

Lanaren helburua azken batean gizartearen segregazioa nola eman zen eta bi modelo horien arteko trantsizioa aztertzea izango da. Nola gizarteak hirian eragiten duen eta hiriak gizartean, eta hauen arteko loturak nola eraman duen bien transformaziora Madrilen.

Honegatik, XIX. mendeko protagonista Zabalgunea eta XXkoa Gran Vía, lanaren bi puntu nagusiak. Lehenaren barnean banaketa bat egiten dela badakigu, beraz

³ Walton J.K. (2003). “Current trends in nineteenth- and twentieth- century Spanish urban history”, *Urban History* (30), 251-265. orr.

banaketa hori bera jarraitzea erabaki dut, bakoitza azaldu baino lehen planaren morfologia aipatuz. Honen sarrera moduan, zabalgunearen aurreko eta Castro Planaren testuinguru bat osatzea komenigarria iruditu zait. Lehen puntu honetatik bigarrenera jarraipen bat ematen da, behar berri batzuek eskatuko dute plan berri bat, oraingo honetan hiriaren zentroan. Gran Vía-ren arrazoiak eta plangintza bera azalduta, barne banaketa jarraituz bakoitza azaltzea derrigorrezkoa izan zait, baina aldi berean denboran aurrera egiteko aprobetxagarria izanik, Guda Zibileraino luzatuz. Azaltzean, gizarte trantsizio hori ere isladatzea beharrezkoa izan da.

2. Madril XIX. mendean: Castro Plana, 1860.

Madrilek sufritzen zuen transformazioarekin (eta honekin batera, populazioaren haztearekin) hiria kanpora zabaltzeko ideia eta proiektuak ugaltu egin ziren. 50. hamarkadaren erdialdera jada kanpoaldeko auzoak existitzen ziren (Chamberí adibidez, zeinaren lurra birbaloratu egingo den). 1860ko uztailan Carlos María de Castroren Zabalgunearen aurreproiektua onartu zen.

2.1. Aurrekariak

Hiriaren harresiak arazo izango dira 1787rako, Gaspar Melchor de Jovellanosek hesiak iparralderantz mugitzea proposatu zuenean, gremio gabeko eremu bat irekitzeko. Gerora azalduko ziren arazo berdinak ez baziren ere, hauek ere agertzen hasiko dira: hiriko errenta altuak kostu baxuko etxeak eraikitzeko lurren zesioa beharrezkoa zen. Asko ordea, *manos muertasekoak* ziren. Honen aurrean, udala pasiboa izango da, aurrerago izango den bezala. Honek eragingo duen populazioaren metaketak eta hiriko higiene faltak Castro eta beste higienista batzuegan eragina izango du. XIX. mendean hiri barrokoak indarra hartzen du, espazioaren erabilera berriekin batera: eremu zabalak bilatzen dira, epidemia, Independentzia Gudaren ondorengo suntsiketak eta 1812ko gosetearen ondorioak pairatzen saiatzen zen hiri baten egoerarekin ulertu behar dugu.

Urbanisten artean, momentu honetan bi eredu ageri dira arazo hauei erantzuna emateko moduan: alde zaharreko erreforma –barnekoa- eta zabalgunekoa –kanpokoa-; azken batean biak nahastu zirelarik.

José I.aren garaian aipatutako barneko eremu zabalak hedatzen dira desamortizazioarekin batera (Fernando VIII. aren garaiko egoera ekonomikoak utzi

zuen bide bakarra). 1836an ezarriko da Mendizabalen desamortizazioa⁴, helburua, argia: haizea eta espazioa lortzea, kaleak zabaldu, eremu irekiak egin -enparantzak-....

Barne-espazioa bestalde, erabat espezializatuko da eremuak banatuz. Azaleratzen hasia zen burgesiaren joera errentista, inmigrazio egonkor batek lagunduta. Beraz, Madrileko burgesia horrek gora egingo du eta populazioaren metaketak, okerrera. Testuinguru honetan Mesonero Romanos idazlea daukagu, garaiko burgesiaren *alter ego*-a eta urbanista. *Proyecto de Mejoras Generales* delakoa dugu, 1856koa. Bertan banaketa sozio-espaziala ematen zen, harresiaren kanpoan bost errebal (*arrabal*) sortuko ziren klase apalentzat eta baita ere fabrikentzat. 1846-47 bitartean ordea, populazioak %36ko gorakada bortitz bat jasoko du⁵. Kanpoaldeko auzo hauetara joango da populazioa, barnealdea husten joango den bitartean. Alkilerraren kostua, fabriketako urruntasuna, etxebizitzaren kalitatea... izan daitezke arrazoietakoz batzuk.

Castro Planak Bartzelonan egin zen Cerdárenaren ildo beretik planteatu zen (Castrorengan eragin handia izan zuen)⁶. Biak izango dira hirietan egiten joango diren zabalguneen eredu. Ezberdintasun txikiak aurkitzen ditugu hala ere: Bartzelonakoa alderdi komertzial/industrial batetik planteatu zen, eta udalerriak eraman zuen aurrera. Madrilekoan ordea, politikak eta administrazioak izango du eragina, eta gobernuak eraman zuen aurrera⁷. 1857an Dekretu Errealak aprobatazen da, funtsezkoa izango dena plana aurrera eramateko eta batez ere, honen aurkako indarrak geldiarazteko (zentroko burgesia errentista, etxebizitzaren gaineko esplotazio eta interesak, udaleko kargu politikoak...).

⁴Autoreak azaltzen duen moduan, Madril higiezinaren merkatu batean bilakatu zen: 540 finka saldu ziren, totalaren %22,5. Fontana, J. (1985). "La desamortización de Mendizabal y sus antecedentes". *Historia agraria de la España contemporánea I. Cambio social y nuevas formas de propiedad*. Barcelona, Crítica, 239.orr.

⁵534 Biztanle egonik hektareako: Palomeque Ruíz, E. (1976). *Ordenación y transformaciones urbanas en el casco antiguo madrileño de los siglos XIX y XX*. Madrid, Instituto de estudios madrileños. 138. orr.

⁶Europear hiriburuen gaineko jakintzak (kanpoan ikasitakoa zen Castro) eta Haussman bera izango dira beste eragin batzuk. Maure, L. P. (1985). *Secundino Zuazo: La arquitectura y el urbanismo en España en el primer tercio del siglo XX*. Madrid, Universidad Politécnica de Madrid, 78. orr.

⁷Palomeque Ruiz, E. (1976), 142. orr.

2.2 Morfologia

Morfologiaren aldetik, Castroren Planak hiru zatitan banatzen zuen Madrilgo zabalgunea: Iparraldeko eremua, ekialdekoa eta hegoaldekoa; hiriaren lurzorua 3 bider handiagotuz⁸. Aurretik aipatu dugun Dekretu Erreal honekin, Castrok hainbat inposizio batu beharko ditu bere proiektuan: Zabalgunea trenbidearen bidez erdigunearekin lotzea zen ideia, *limes* berri bat ezartzeko zabalgunea lubaki batek mugatuko zuen. Gainera, langileentzako etxeak sakabanatuko ziren eta eremu berdeak hautazko guneeetan ezarriko ziren (berdina gertatzen zen instituzio publikoentzako eremuekin). 1860ko uztailak 19an Madrilgo Zabalgunearen aurreproiektua onartzen da.

Garaiko arazo handienetariko bat higiene publikoa zen, Castrok apaltzen saiatu zena: zabalgunearen diseinurako tenperatura eta haizearen norakoak kalkulatu zituen, adibidez⁹. Horrez gain, plano hipodamikoa diseinatu zuen, etxadi ortogonalekin. Kaleak hierarkia bat jarraitzen zuten¹⁰, era berean eraikinen altuera baldintzatzuten zuten (gehenez ere 3 pisukoak ziren). Espazio publikoen garrantzia handia da, plaza zirkularrak diseinatzeko dira, etorbide zabalak, txafllanteak eraikinetan espazioa irabazteko, etab. Auzoak klase sozialaren arabera banatu ziren, behar espezifikoerentzako nahi bait zitzairen (higienisten lehentasunak eta aurretiko erabilpenak nahastu ziren honetarako). Segregazio honek liberalismo kontserbadorearen logikari erantzuten dio (gainera, ondasun pribatua babesten zen, eta nahiz eta proiektuan honela agertu, ez zen behartu modu honetan eraikitzea –gogoratu interbentzio publikoa ez zela begi onez ikusi-). Segregazio hau dela eta, zabalgunea hiru zatitan azalduko dugu, Castrok berak planteatu zuen moduan.

Iparraldeko zabalgunea. Iparraldean Chamberí-ko errebelu dugu, kanposantu eta Isabel II.aren Kanalekin batera. Fabrika batzuk ere aurki ahal ziren, txikiak oraindik. Zabalgunean Chamberí mantendu zen, populazio-foku esanguratsuen Bestetik, hilerriak (kanpoalderuntz) arazo bat izango direna gerora (Moncloa kasu). Mugitu nahi izango dira, etxek espazio hori okupatzera jotzen dutelako. Hirugarren, eremu industrial bat gordeko da plangintzan, industria txiki horien eta berrien eboluziorako. Hiriko

⁸ 800 hektareei 2.294 gehitu zitzaizkion. Maure, L. P. (1985), 155.orr.

⁹ Eskola higienista osatzen zutenen artean garrantzia handia ematen zitzaion honelako datuei planoak diseinatzeko orduan.

¹⁰ Lehen mailakoak 30m, bigarren mailakoak 20m eta hirugarrenenak 15m. Carballo, B., Pallol R., Vicente F. (2008). *El Ensanche de Madrid: Historia de una capital*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editorial, 69.orr.

azpiegiturekin batera sartzen dugu ur-kanala, hemendik pasako dena. Iparraldeko eremua hornikuntzarako eta industriarako utzi zuen Castrok (*ikus 1. Irudia*)

Esan beharra dago hasiera batean Chamberí iparraldeko zabalgunearen proiektuaren barnean bateratzea zela ideia, nahiz eta plano ortogonala hautsi. Hau aldatu egingo da ministeritzaren nahiengatik, eta aldi berean ugazaben arteko tirabirak sortu zituen (erakunde publikoek ez zuten eraikitzea erregulatu, askea zen –liberalen printzipioetako bat ondasunen jabetzaren babes sakratua zen eta eraikitzearen erregulazioa honen aurka zioan-), proiektu originala aldatzen zutelako.

Ekialdeko zabalgunea lau zatitan banatzen da, ezaugarri ekonomikoak argi ikusteko moduan. Batetik, ipar-ekialdea osatzen duten lau zati dauzkagu (*ikus 2. Irud*):

- 1) La Castellanako auzo aristokratikoa (Prado-Recoletos izanik eredu garbiena)
- 2) Aragoiko errepideraino luzatzen den goi-mailako auzoa, aurrekoaren luzapena ematen duena (urte batzuk lehenago hasiko da eraikitzen hura)¹¹. Orografiaren aldetik, gorabehera leunak ditu, eraikitzeko erraza izanik. Madrilgo burgesiak erositako eremua dugu, Salamancako Markesari jarraituz. Kirol eta kultur gune artean eraikitzen dira (klase goi- ertainekin partekatzen zirenak) eta bestetik, kanpoalderago, eremu berdeak eta ospitaleak.
- 3) Aragoiko errepidearen hegoalderantz eta
- 4) Retiro parkearen atzealdean, ekialdeko zabalgunearen erdi- hegoaldea aurkitzen dugu, txiroagoa (langile ez- gaituak eta zerbitzuetan lan egiten zutenak).

Orokorrean, urbanizatze azkarra jasan zuen (gorabeherekin), honekin batera zerbitzuen ezartze nahiko goiztiarra José de Salamanca-ren eskutik. Espazio urbano hau *ex novo*¹² klase bakar batan pentsatzen egin zen: burgesia lokala -zeina eskala sozialean gora egiten hari zen aldi honetan-, militarrek, eliteko artisautza eta kargu administratiboek osatzen zutena. Hala ere, klase ertaina ere bertaratu egin zen. Etxadiak honen arabera banatu ziren kale zabalekin¹³ eta enparantza zirkularrak ezarriz bidegurutzetan.

¹¹ Díez de Baldeón, C. (1998). *Arquitectura y clases sociales en el Madrid del siglo XIX*. Madrid, S. XXI de España Editores, 261. orr.

¹² Carballo, B., Pallol R., Vicente F. (2008). 71.orr.

¹³ Gogoratu kaleen zabalerak honen maila erakusten zuela.

Hegoaldeko kasuari dagokionez; Castrok beraz ez zuen hasiera batean Zabalgunearen proiektuan sartuko, sartzeko arrazoi bakarretakoa hura osatu eta ixtea zen. Hegoaldeko Zabalguneak iparraldean Toledoko atea zuen, ekialdera Atocha eta hegoaldean Manzanares ibaia. Orografia oso malkartsuarekin (Atocha-ko eremuan izan ezik, leunagoa), Castrok bertan aurretik zeuden lur-landuen eremua utziko du bertan. Peñuelas-eko populazio fokuarekin¹⁴ gorabeherak egongo dira, nahiz eta azkenean ez bota. (*ikus 3. irud.*).

Salatuko da bertako egoera makala, bai higienaren aldetik eta bai azpiegitura faltengatik; hauek izanik hegoaldea zegoen moduan uzteko beste arrazoietakoz batzuk. Castrok bertako populazioa bertan isolatu nahiko du, beharrezko zerbitzu publikoak ezartzeko eskatuz (gogoan izan bertako gehienek lan-eremuak zituztela bertan, bai bizilekua ere). Hiriaren eremu produktiboa gordeko du hegoaldeak. Inguruan, hirian ezarri ezin ziren zerbitzuak aurki ditzakegu, horien artean hilerri bi (XX. menderako kenduko direnak), elizak eta biltegiak, eraikin militar xumeekin batera¹⁵.

Morfologia ikusita, kasu bakoitzean sakontzen joango gara, bakoitzaren ezaugarri eta aldaerak hobeto ikusteko. Orden berdina jarraituko da, hegoaldearekin amaituz¹⁶.

2.3. Iparraldea: Chamberí eta gizarte plurala.

Chamberíren kasuaren inguruan, esan 30eko hamarkadan sortu zela Madrileko hiriaren limiteetatik kanpo, kapa popularrek behar eta zentroan ematen ez zen etxe-errenta merke bati erantzunez. Honela, 1860an 5.000 pertsona bizi ziren bertan. Erretaren prezioa 14tik 30 pezetara handitu zen eta 1800-1860 bitartean “*zona auxiliar*” moduan ikusten zen eremua azkarren populatu zena izan zen. Esan dugun moduan, etxe popular eta hiriarentzako ekipamenduak –“komodoegiak” ez zirenak- ezartzea pentsatu zen (hilerriak eta Isabel II.aren kanalak bertan ezarri ziren).

Ekipamendu horiek eta higiene faltak eraikuntza sektorea bertatik aldendu zuen (ipar-mendebaldean batez ere, non lau hilerri eta Vallehermoso-ko auzo txiroa zegoen). Ipar-ekialdean ordea, alderantzizkoa gertatu zen: zuhaitzez inguraturiko bideak egin

¹⁴ Populazio kontzentrazio handi bakarra izango da, beste guztia sakabanatua egongo da, gehienbat ibai eta bide nagusien aldeetan.

¹⁵ Juez Gonzalo, E P. (1991), 87-89. orr.

¹⁶ Banaketa orokorrerako, *ikus 4. Irudia*.

ziren La Castellana hiribideraino 1830an, eta horrek eragingo du ekialdeko auzo aristokratikoak bertaraino luzatzea. XIX. mendeko metaketa eta etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, 1838an eraikitze arauak ezarriko ditu udalak, segurtasun sententzio bat sortuz eta aktibitatea bultzatuz. Hala ere, 40. hamarkadan planorik gabe eraikitzen hasten dira.

Zentroarekiko inkomunikazio arazoa ez zen konpondu. 50eko hamarkadan ikastetxe eta eliza berriak agertzen dira, lan arloan ezberdintasunak daude, ez dira soilik jornalari edota fabriketako langileak. Hauei langile liberalak, pentsiodunak, ugazabak... gehitzen dizkiogu. Benetako urbanizazioa ordea, 1860an emango da, Zabalgunearen proiektua onartzean.

Iparraldea 4 distrituetan banatuko da momentu honetan: Chamberí, La Castellana aldeko eremu garestiagoa eta garapen txikikoa; fabrika eremua iparraldean eta Vallehermosoko auzoa (hilerrien eta landa-eremu tartean, degradatuena).

Eremu hau Zabalgunearen barnean sartzean, bertako aurreko urbanizazioa onartu zuten Castrok eta Udalak, eta emandako aurreko banaketa errespetatzen saiatzen da urbanista¹⁷. Oraingo honetan La Castellana aldeko eremu aristokratikoagoan emango da urbanizazio handiena, 70ko hamarkadarako berezitasun bat emanez: eremu aristokratikoa non etxe gehienak hotel txikiak izango diren, hau da, etxe unifamiliarrak jardinekin¹⁸, aristokrazia eta burgesiarentzat ixten hasiko da, alkilerren igoerarengatik¹⁹. Arrazoiak hurrengoak lirateke: Madrilen barruan sartu zela orain errebala eta bestetik, eraikitzearen euforiak ekarri zuen inflazioaren dinamika, zeinak ezberdintasunak handitzea eragin zuen bi eremu hauen artean. bi eremu hauen arteko ezberdintasuna handitzea.

Gizartearen aldetik ordea, izate popular hori gorde zen. Hare gehiago, jornalari gehiago aurkituko ditugu 80ko hamarkadan 60. urteetan baino; eta bestalde, artisau gutxiago. Prozesu honi *jornalerización*²⁰ deritza eta ongizate sozialaren galera ote dakarren kuestionatzen da, nahiz eta hau ez den argi geratzen. Arrazoa goi eta klase

¹⁷ Carballo, B., Pallol R., Vicente F. (2008), 125. orr.

¹⁸ *Ibid.*, 127. orr.

¹⁹ Alkilerren media 60tik 80etara 14,73 pezetatik 30'42ra handitu zen. Vicente Albarrán, Fernando, (2011). *Los barrios negros: El Ensanche Sur en la formación del moderno Madrid (1860-1931)*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editores, 41. orr.

²⁰ Carballo Barral, Borja (2015). *El Ensanche Este, Salamanca- Retiro 1860- 1931: El Madrid burgués*. Madrid, Catarata, 131. orr.

ertainen foku berriak agertzen direla zonaldearen iparralderuntz, 70eko hamarkadatik aurrera, batez ere lepo zuriko ogibide liberalak. Honen gaineko aldaketa kualitatiboak ditugu, beraiekin batera zerbitzua ere joaten delako. Gainera, agertzen diren dendak eskusiboagoak dira eta honek denak segregazio sozio-espaziala bultzatzen du, kontrasteak sortuz.

Zerbitzuaren kasuan ordea, ekialdeko zabalguneko kasua esanguratsuagoa da.

Iparraldean, klase ezberdinen sakabanaketa bat ematen da, hasiera biztanleria oso asentatua zegoenez, eraikitze azkartiarra eta handia jasan zuen. Honek biztanleriaren etorrera hare gehiago bultzatu zuen eta era berean, errenten gorakadekin, estratu berriak.

2.4. Ekialdeko Zabalgunea: Aristokrazia eta goi-burgesia

Ekialdeko zabalgunean, 1836-1869an biztanleriaren %33ko gorakadarekin, etorkinen joeraren aldaketa eman zen, alkilerrek -liberalizatuak- gora eginez. Eraikitze-oinarriak 1851an ezarri ziren: trenbidea eta ura. Aragoiko eta Toledoko errepideak ere eragin zuten migrazioan (gehiengoa Guadalajara eta Toledokoak, konexioengatik)²¹.

José de Salamanca markesak eraman zuen aurrera lehen urteetako eraikitzea. Proiektua “*Nuevo Madrid*” delakoa sortzea zen, burgesia berriaren -eragin handikoa- idealak islatzen zituena. Burgesiarekin batera, hasieratik ezarriko dira militarrek, kleroa (kuartelen eta elizak zeuden), goi- mailako artisauak (ez zegoen industria handirik), administrazioko kideak (zentralizatua), aristokrazia zahar eta berria (José de Salamanca bera). 1878rako 15.362ko biztanleria izango zuen ekialdeak, gehiengoa La Castellana hiribidearen ardatzean (lehen eraikuntzak hauek dira Castroren irizpideekin bat eraiki ziren bakarrak).

Populazte sakabanatua posible izan, gehienbat Retiro-ko parkeak pantaila egiten zuelako. Retiro atzeko zonaldea azkena izan zen, nahiz eta parkearen zati bat eman Isabel II.ak udaletxeari. Honek bertako errenta merkeagoa izatea eragin zuen eta emigrante askok bertara joko dute, gehienbat jornalariak. Gainera, ondoko lurak agropekuarioak ziren eta bertan lan egiten zuten nekazari asko ondoko behe mailako etxeetan bizi ziren (ezaugarri berezia). Honela, Salamanca auzoko eraikitze fasea lehen

²¹Carballo Barral, B. (2015), 118. orr.

urratsak ematen hari bazen ere, zabalguneko zonalde azpipopulatuena izatea eragin zuen²².

Biztanleriaren segregazioa aztertzeke, langileriaren estruktura aztertu behar da: 1860an, etxeko-zerbitzuan lan egiten zuten populazioaren proportzioa oso handia zen beste eremuekin konparatuz gero²³. Sektorea asko feminizatzen da: 78rako gehiengoa emakumeak ziren. Dena dela, etxe-zerbitzuetan lan egiten zuten emakumeen portzentai handi batek internoki egiten zuen lan, lan egiten zuen etxe berean bizi zen (*ikus 2. Koadroa*).

Zerbitzu hauek kontratatzea merkea ez zenez, *statusean* eragin zuen. Internotasun hori azpimarratzeko, familien datuak erabili ahal dira: %19ak logika nuklearretik ihes egiten zuten. Honek zerbitzu hori existitzen zela erakusten digu, bai eta hazi egiten zela. Segurtasuna ematen zien krisi garaietan kontratu mota honek langileei. Gainera, aristokrazia eta goi-mailako estratuarekin batera bizi zirenez, bertan integratu eta ez ziren eremu marginaleko parte izango. Amaitzeko, esan honek ezkontzaren adinaren atzeratzean eragin zuela²⁴, umeen zenbakia murriztuz²⁵.

Ildo beretik, kualifikatu gabeko langileria honen %20a kanpotarra zen²⁶, honek ez badu esan nahi emigrante guztiak zirenik langile kualifikatu-gabeak (Chamberín madrildarrek osatzen zuten emigranteekin batera talde hori). Etxe-lanetan ibiltzen ziren emakumeak ere migranteak ziren, gehienbat iparraldekoak (kaparetasun dun eta eremu tradizionalki katolikoa). Salbuespenak-salbuespen, ekialdeko eremu pobreak bizi ziren, gutxien edifikatuta eta lehendik zeuden *tejar* eta etxoletan, artisau lokalekin batera²⁷. Salbuespena, zerbitzari internoekin batera, izango dira behe mailako militarrek, kinta zerbitzu eta bestelako ezaugarri bereziak zituztelako; baita erlijioarekin lotura zutenak.

²² Carballo Barral, B. (2015), 102-104. orr.

²³ Carballo Barralek 12 urtetik gorako langileak hartzen ditu kontuan 57ko Moyanoren hezkuntzaren gaineko legearengatik. Gainera, sexuen arteko banaketa ere, beharrezkoa dena sektore batzuen feminizazioarengatik eta emakumeen datuekin arazoak daudelako, asko ez baitzeuden erregistroan. *Ibid.*, 130-135. orr.

²⁴ *Ibid.*, 120.orr.

²⁵ Aldi berean esan datuei begiratzuz gero, goi mailako gizarteko estratuek familiako seme-alaba gehiago zituztela Erdi edo behe mailakoek baino, gehienetan. Bahamonde Magro, Á., Otero Carvajal, L. E. (1989); Quietud y cambio social en el Madrid de la Restauración, in *La Sociedad madrileña durante la Restauración (1876. 1931)*, 21-28. orr. 24. orr.

²⁶ Carballo Barral, B. (2015), 135. orr.

²⁷ Hau da, Retiro atzeko eremuak, non alkilerria baxuagoa zen aurretik aipatutako ezaugarriengatik. Bahamonde Magro, Ángel; Toro Mérida, Julián, (1978). *Burguesía, especulación y cuestión social en el Madrid del siglo XIX*. Madrid, Siglo XXI de España, 168. orr.

Elementu urbanistikoaren erabilera espezifikorengatik langile profesional eta enplegatu gehiago bizi ziren hemen²⁸. Eredu honetan lorategi botanikoa, museoak, liburutegiak, administrazioeko eraikinak, koroarekin lotutakoak... zeuden, eragin handia izan zuten elitismo kutsua markatzeaz gain; bai eta jauregi txikiak, eskatuko dituzten zerbitzuekin. Madrilen guztira, biztanleriaren %4,94a zen ildo honetako langilea, eremu honetan zegoen %20a, portzentai handiena. Soldada erregularra zuten, estabilitate bat eman ziena. Goi-mailako estatuko langileak (%60 ia), burgesia gorakorren parte izanziren ere, baita lepo zuriko langileak (%31). Militar eta elizgizonen kasuan, eremu honetako eraikin militarrek eta erlijiosoak langileria mota espezial hau erakarri zuten.

Honek aldaera estruktural handiak ekarri zituen, emigrante eta bertakoen arteko disonantziekin batera, sintomatikoa izan zena: erlazio sozio-ekonomikoak, familiakoak eta espezializazioa gutxitzen dira. Segregazioa horizontala da hasieran, baina bertikala ere azalduko da gero, berez zentroko joera zena: luxuzko eraikin altuagoak, ganbara zein solairu-arteoetan bizi ziren klase apalagoak, errenta oso altuetako eraikin horietan gutxiago ordainduz baina bizi-egoera txarrago batean. Hala ere, prestigio soziala gehiago erlatibizatu zen estentsioan altueran baino.

Botere politikoak hierarkizatuta zeuden (estatal, probintzial eta udala), zona batzuetako asentamenduen ezaugarriak zerikusia zuten gizarte honen bilakaerarekin (ekialdean funtzionario gehiago). Eraldaketa juridiko-politikoak eta ekonomia liberalak ere eragin zuten, batez ere 80ko eraikitze-gorakadan (aurreko 66-68ko krisiak eta Salamancaren porrotak “izua” eragin zuten inbertsoreetan eta udalak azpiegiturak eraikitzeke orduan izan zituen ezintasunak erritmoa pausotu egin zuten²⁹). Etxebizitza berrien kalitatea txarragoa zen. Espekualzioak ere ez zuten lagundu, eraikitzeak geldiarazi edo atzeratu zituelako. Hala ere, segregazioa bultzatuko duen faktore handiena Salamancaren proiektua da. Honek guztiak eragingo du errenta altu eta baxuenen arteko aldearen handitzea, beste eremuetan baino nabariagoa³⁰.

Autoreak esaten duen moduan, “[1864ko Legea] (...) *es el principal culpable de la segregación espacial y la disparidad entre los recursos municipales*³¹. Eredu bakoitzaren gaineko inbertsioa bertako maila ekonomikoaren arabera ezartzen zuten

²⁸ Bestelako langileengandik ezberdintzeko erabiliko dugu, *langile* hitz generikoagoa izanik.

²⁹ Hobekuntzarako lan publikoak 1877-1881 bitartean emango dira. Carballo Barral, B. (2015), 245.orr.

³⁰ *Ibid.*, 223- 228. orr.

³¹ *Ibid.*, 330. orr.

legeak. Udalak hartzen du Estatuaren ardura lan eta presupuestoen gainean. Erabakitzen da zona bakoitzean azpiegitura lanak egingo direla etxeak agertzen diren heinean: eraikitze handiagoa, presupuesto handiagoa. Presupuesto horrek azpiegitura publikoetako kapitala adierazten zuen. Segregazioan ezaugarri garrantzitsua da, eraikinen material eta ezaugarriak, errentak... kontuan hartzen zirelako. Honegatik zituzten arazoak behe-klasea gehiengo zen auzoetan azpiegiturak ezartzeko. Honek ezberdintasunak itzelak eragin zituen.

2.5. Hegoaldeko Zabalgunea

XIX. mendean hedatu zen auzo marginalaren imaginarioa eta ideia, egun indarrarekin bueltatua. Dena dela, ezin dugu ideia hau osotasunean jarraitu, klase ertaineko populazio bat ere bazegoelako; zentroko alkiler altuetatik ihesi, hegoaldeko elitea izango dena.

Hasteko, esan hegoaldeko *limesak* ez zirela egonkorak izan urte hauetara arte³². Ez zen inguruaren akondizionamendurik eman eta Carlos III.aren bideak ez ziren berriitu ezta zaindu. Egin ziren lan gutxiak hiri-sarrerako zergak kobratzera bideratuak zeuden, udalaren interes ekonomikoa zela eta.

Biztanleriaren aldetik, zifra absolutua txikia zen, dentsitate handirik ere ez zen eman hasiera batean. Peñuelaseko errebelak dugu populazio kontzentrazio bakarra, nekazal funtzioarekin jaino zena (desagertuz joan zen). Irregularra eta kalitate txarreko bitokiak ziren, beraiek eraikitakoak. Marginatu, lan-gabetuak, klase baxukoak osatzen zuten bertako populazioa. 1905an dentsitatea 5.52bizt./H.koa zen; zentroan 11,03koa³³.

Hegoalderantz jotzen dugun heinean etxe gutxiago zeuden, gelditokiak hedatzen ziren bitartean. Toledoko atean ematen zen merkatarien jardura handiagoa ixten zirelako tratuak³⁴. Merkatari hauen inguruan sortu ziren soziabilizazio guneak³⁵, gerora fabrika eta etxebizitza multzoen handitzeak bultzatuz. Kontuan izan behar dugu hiri barneko fiskalitateak ez zuela bertan eraginik (kontrabando zifra txikiak eman ziren)³⁶.

³² Autoreek ere bakoitzak zonalde ezberdinetan banatzen dute zabalgunea konparazioak egiterakoan.

³³ Miguel de Salanova, S. (2015). *Madrid, los retos de la modernidad: transformación urbana y cambio social (1860-1931)*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Ediciones., 192. orr.

³⁴ Carballo, B., Pallol R., Vicente F. (2008), 227.orr.

³⁵ Vicente Albarrán, F. (2011), 139. orr.

³⁶ Ez dakigu zihur zein portzentaikoa izan zen aldi ezberdinetan, baina hala ere ez da handiegia izango edo, gutxienez, udalak eskua ez sartzeko hainbeste.

XIX. mende erdialdera aldaketak hasi ziren. Gas-fabrikak garrantzia izan zuen honetan, fabrika-lanak agertu zirelako. 1880rako degradazio progresibo bat eman zen hegoaldeko egoeraren gainean, udalaren pasibotasunak lagunduta.

Trena izan zen hiriaren alde honetako aldaketarako motorra (ipar eta mendebaldean Zabalgunea bera). Estatua gehiago zentralizatuko da sare zirkularra delako, eta beraz, komunikazio bideen puntu zentrala zen. Dena dela, hegoaldean gizarte-aldaketa prozesuak biziagotuko zituen: ezaugarri ekonomikoak, aisialdia, lurren erabilera eta zonaldea hiriaren barnean sartzen du, gutxienez funtzionalitatearen aldetik³⁷. 1851eko otsailaren 9an Atocha eraikitzen da eta Madril-Aranjuez sarea, Salamankako Markesaren kapitalarekin. Ia hasieratik geltoki nagusia zen, berarekin lotutako biltegi, industriak... hedatu zirelarik inguruan. Trenbideen Legediarekin eraikitzea fabrika pribatuen eta trenbidea bera estatuaren menpe gelditu ziren. Oligopolio bat sortuko da bi enpresen artean kontrolatuz sektorearen zati handiena: NORTE (1858) eta MZA (1856)³⁸. Hirugarren bat agertuko da aurrerago, MCP (1880an).

Lanesku ez-kualifikatuaren eskaria handitu zen enpresa- kontzentrazio honekin. Bizitza-esparruak fabrikekin nahastu eta bertako langileria hegoaldean bizitzen jarri zen. Konpainiek logika burokratikoa ezarri zuten, kualifikazioaren arabera banatuz langileak³⁹. Karrera profesionalei bultzada emango diete eta lehen aldiz, langileen aldeko plangintzak ezarriko dira⁴⁰: semeentzat debaldeko hezkuntza, ofizioaren ikaskuntza, laguntzak senarrik gabeko langileentzat....Soldata fijo eta egonkorrak ziren⁴¹.

Trenbiek ordea, aurreko garaiko gabeziak begi-bistan utzi zituen: azpiegitura, estolderia sistema, ur garbia, argindarraren falta, azpiegituren egoera txarra (zeuden

³⁷ Kontuan izan behar dugu Atocha eta Iparraldeko geltokiak lotzeko eginn zen trenbidea eta lehenaren lokalizazio geografikoa eta beste sektoreen arteko loturak. Juez Gonzalo, E. P. (2002). *El mundo social de los ferrocarriles españoles de 1857 a 1917*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Ediciones. 48.orr.

³⁸ NORTE-k Madril- Irun línea egingo du capital frantsesarekin, merkantziaren mugimenduan gehiago enfokatua (Bilbo aldeko enpresekin lotura zuen). MZA bestetik, Madril – Zaragoza- Alikante eraikiko du, populazio mugimenduekin gehiago lotua. Langileria frantsesa ekarri beharko da lan kualifikatuak egiteko, espainiarrek kualifikatu gabeak egiten dituzten bitartean aurrekoak ikasten zituzten.

³⁹ Banaketa honek sindikatu ezberdinak sortzera eramango du, askotan kontrari agertuko direnak. *Ibid.*, 358. orr.

⁴⁰ *Ibid.*, (2002), 147.orr.

⁴¹ Enpresa pribatuetako langileriaren gainean ezarri daitezke ezaugarri hauek, ez estatalen gainekoetan. *Ibid.*, 68- 70. orr.

bideak lurrezkoak ziren), higiene eza kale eta etxe barneetan... bi motatako etxebizitzak ezberdintzen ziren: zaharrak (beraiek eginak, kalitate txarrekoak, baxuak) eta berriak (luzangak, estuak).

Hau dena kontuan izanda, eraikitze prozesuan nola eragin zuen aztertuko dugu. Migrazio fluxua ez zen eraikitze erritmoarekin paraleloa izan. Honela, populazioaren metaketa behartu egin zen (Hauser bezalako higienistek salatu zuten egoera).

Alkilerak gora egingo du lurraren birbalarizazio eta populazioaren handiagotzearengatik⁴². 70ko hamarkadan eman zen eraikitze erritmoaren gorakada, gero moteldu egin zen estatu- krisiarengatik. Kontzentrazioa Peñuelasen eman zen, baina nukleo berriak ere agertuko dira hegoaldean eta Pazifiko kalean. Kaleen kalitatea hobetua zen⁴³, nahiz eta bestelako azpiegiturek ez zuten hobekuntzarik jasan, epidemia garaietan arriskua handituz (1885 kasu).

Ondoriozko segregazioa ulertzeko, ipar-ekialderantz eta hego-mendebalderantz zioan eje bat marraztu behar dugu mapan (*ikus 4. irud*) Honek banaketa ekonomiko bat planteatzen lagunduko digu. Hiru motatako populazio zonalde aurkituko ditugu orain: Palos de Moguer (ipar- ekialdean, residentziala, klase baxuen barruan hobekien zeuden bizilekuak. Beheko solairuak negozioak ziren gehienetan), Peñuelas arrabala (familien gehiengoa jornalariak ziren), eta hegoaldeko ibaiaren inguruko zona (marginalagoa, txiroagoa), eta azkenik etxola sakabanatuak kanpoaldera, txiroenen bizilekuak.

Populazioaren segregazioan eragin zuen zuzenean trenbideak, beraz. Denborarekin batzuk postu garrantzitsuak lortu zituzten, gizartean gora eginez. Polarizazio sozio-profesional bat eman zela espazioan esan, arrazoi nagusiak finantzaketa sistema, soldata eta estatus sozioekonomikoa eta banaketa soziala izan ziren. Postu garrantzitsuagoak lortu zituztenek iparraldean jarriko dira bizitzen, *rondetan*. Hala ere, ez dago auzo burgesik edo proletario- auzorik, iparraldean bezala. Espazioan bai ematen da, baina ezaugarriak ezberdinak dira: zentroarekiko gertutasuna izen hemen garrantzizkoa, bai eta kale nagusi eta bigarren mailako arteko ezberdintasunak. Bertikalean ere eman zen, baina soilik eraikin berri horiek egitean,

⁴² Aldi honetan erabakiko du Fernandez de Los Ríos-ek Peñuelas ez botatzea. Carballo, B., Pallol R., Vicente F. (2008), 244.orr.

⁴³ Udalarik eskakizunak egin zituzten bertako bizilagunek.

asko *corrala* bezala ezagunak. Ereku txiroenetan, hegoalderago, hazkunde begetatiboa negatiboa zen, bertara mmigrazio eta zentroko jendea joan zen, hazkunde positiboa posible eginez.

Aldaerek Castroren planoarekin hautsi zuten, Sebastian El Cano eta Fray Luis de León kaleak kasu. Gainera, alde zaharretako kaleak bezalakoak izango ziren batzuk agertzen dira gorakada kontrolatu gabeko garaian.

Zabalgunearen hiru alde hauen ezaugarriak eta aldaerak ikusita, hainbat ondorio atera ditzakegu.

Inmigrazioa izan zen dudarik gabe Madrilen hedapen horren oinarri, artikulatzailea bitartean, burgesia izan zelarik. Landa exodoko etorkin eta kualifikatu gabeko langileak hedatzen dira artisauen beherakada progresiboa sumatzen dugun heinean. Hauen eskaerei erantzutean eraikuntza sektorearen papera azpimarratzekoa da, udalak legediaren bitartez segregazioari ateak irekitzen zizkion bitartean. Langile profesionalen hedatzearekin (sistema aldatzen joan zen) beraientzako eremuak eraikitzen dira; behe mailako langileen hedatzearekin ere, beraientzako zonak sortzen diren bitartean. Zabalguneak zuen helburuetatik hau izan zen bakarra betetzen, higiene faltak, metaketak etab.ek jarraitu egin zuten. Ekonomiako sektore garrantzitsuena eraikuntzarena izateak ez zuen lagundu industrializazio atzeratu hori aurreratzen⁴⁴.

Honela, iparralde “plural” bat aurkitzen dugu, ekialderantz egiten dugun heinean elitean bilakatzen dena. Geroz eta hegoalderago jo ekialde honetatik, goiko klase-sozialen presentzia jaisten joango da, azkenik hegoaldeko txiroekin eta trenarekin amaitzeko. Azken batean, hiri liberal- burgesa ekialdean fokalizatua geldituko da, La Castellana inguruan.

⁴⁴ Ekonomikoa baino, zehatzagoa da “industrial” kontzeptua kasu honetan. Ekonomikoki, eraikuntza sektorea garatuko bait da hurrengo urteetan, baina ez hainbeste industria astuna.

3. Madril XX. mendean: Gran Vía

XIX. mendeko Zabalgunea garaiko arazoei erantzuteko modua izan bazen, XX. mendean Gran Vía izango da. Eraikitzea aldi ezberdinetan emango da, beraz banaketa egin dugu, plangintzako berdina. Hiru horietan emango den prozesua azaldu bitartean, denboran aurrera joko dugu, Guda Zibilaraino ailatuz. Honek hiribidea ikuspuntu ezberdin batzuetatik ikusteko balioko digu. Bertako tertziarizazioa izango da ildo nagusia dena dela, klase ertainekin lotuko duguna.

Zabalgunea egina eta ondoriozko segregazio espaziala handitua, hiriaren aldaketa berriei erantzun beharko dira. Batetik, Castrori kritikatu zitzaion gauzetako bat, kanpoaldeko erreforma autonomo bat egitea izan zen, kanpoaldeko irekiera hori barnealdearekin ez konektatzea. Hiri barneko mugimenduak aldatzean eta espazioa txikiagotzean, zentroa eta zabalgunearen arteko loturaren indartzea beharrezkoa zen. Ez soilik bitartekoak zeudelako eta joera hori zelako, baizik eta zabalgunean biziko delako orain populazioaren gehiengoa baina zentroak jarraituko dute lan egiten askok. Bestetik, hiri barneko zirkulazioa bera hobetzea, zentroa kaos bat zelako eta berrikuntza handirik ez zelako egin, baina beste guztia aldatu egin zen bien bitartean: populazioa handitu zen, hirugarren sektoreak indarra hartu zuen... langile eta merkatarien mugimenduekin kongestionatu egiten zen zentroa. Baita ere, Argüelles eta Salamancako auzoen lotura (eta hala, zabalgunearen bi zatien lotura), enklabe estrategikoak eta biak klase altuko auzoak. Gainera, bizi-erritmo frenetikoago bati erantzun beharra zitzaion, zentroko kale itxi eta estuekin amaitzea beharrezkoa zelarik aldi berea (erritmo hori hausteaz at, higiene faltagatik, oraindik arazo larriagoa zena alde zaharrea). Esanguratsua da baita ere, amaitzeko, Atocha eta Príncipe Pío arteko lotura, bai industrialki bai biztanleriarentzako tren sarearekin.

Honi denari Gran Viako proiektuarekin eman zitzaion erantzuna, Independentzia Plazatik Espainiako Plazara joanen den hiribide zabala, hiriaren arteria esanguratsuenetako bat. Hura izango da gerora Madrilen eszenifikazio zentroa eta ikurra. Hiri barneko plangintzaren eredu esanguratsuenetariko bat dugu.

XIX. mende erdialdera aurreko nahi horiek lortzeko jada ideiak ematen hasten dira. Lehena 1862an, Callao eraikitzen hasten denean. 1886an gero, Carlos Velascoren eskutik, eta honen oso berdina izango den definitiboa 1886an, José López Salaberry eta Francisco Octavio Palaciosena. Proiektua azken batean Preciadosko kalea eta Callaoko

Plaza lotzea zen, Alcalárantz amaituz. 3 zatitan banatu zen, hiriaren paralizazioa ekiditeko⁴⁵: *Avenida A*, Espainiako Plaza- Callao lerroa (Conde de Peñalver kalea); *Boulevarda*, Pi i Margall zatian eta *Avenida B* edo Dato Etorbidea. 1.316mko luzera eta 25mtako zabaleran. Erreforma 8 urteetan egin behar zen berez⁴⁶.

Proiektuak ordea hainbat arazo ekartzen zituen: bizilagunen kexak, expropiazio askoren beharra, merkatarien kezkak, kapital falta... Alfontso XIII.ak oniritzia eman zuen azkenean. 1909an eman zitzaion hasiera azkenean, postore falta zela eta hirugarren saiakeran agertu zen Martin Albert Silver frantziar bankariari esker, 29milioi pezeta jarri zituenak. Hurrengo urteko apirilean hasi ziren lanak. 1910-14 bitartean azpiegiturak ezarri ziren gehienbat, baita lurraren leuntzeak. 1915 amaieran obren geldialdiaren gaineko zurrumurruak hedatu ziren, udalaren kapital faltagatik eta enpresa pribatuaren arteko komunikazio faltagatik. Gainera, lanak atzeratuta entregatu ziren⁴⁷. Beste arazo garrantzitsu bat izan ziren etxeetako kanporatzeak⁴⁸, enpresaren egoera ekonomikoa, argindar eta gasaren instalazioaren zailtasunak, eraikitze sektorearen krisia 1916-20 bitartean, eta indemnizazioen ordainketen atzeraketak. Azkeneko zatia ez da hasiko 1925 arte, zailtasun handiena suposatu zuena.

Hiribideak jasango dituen prozesuak ulertzeko (tertziarizazioa, baina honen gainetik gizarte- aldaketa sakon bat dagoela kontuan izan behar dugu), testuinguru bat ezartzea beharrezkoa da.

1917rako aldaketa politiko eta sozialak oso handiak izango dira. Gizonezkoen sufragio unibertsalarekin, komunikazio bideen irekierak eta masazko partidu populista berrien gorakadak posible egin zuen langileriaren egoeraren hobetzea. Orduko laneguna insituzionalizatu zen, soldatek gora egin zuten eta honekin, denbora eta diru gehiago lortu zen. Argindarraren orokortzeak (hala-nola eman zena), kaleen bizi-espazioaren estentsioa ekarri zuen, bai eta gaueko- biziarena eta honekin tabernak, pub-ak... Honela, aisialdia kontsumoarekin geroz eta gehiago lotu zen, tertziarizazioa erraztu eta bultzatu zuena. Eta garrantzitsuagoa dena, klase ertain horrek parte hartu ahalko du. Aldaketa

⁴⁵ De Miguel Salanova, S. (2015). *Madrid, los retos de la modernidad: transformación urbana y cambio social (1860-1931)*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editorial, 717. orr.

⁴⁶ Baker, Edward (2009). *Madrid Cosmopolita, la Gran Vía 1910- 1936*. Madrid, Marcial Pons Ediciones, 61. orr.

⁴⁷ De Miguel Salanova, S. (2015), 717-720. orr.

⁴⁸ Hau indartua ikusi zen 1915eko populazioaren gorakadarekin, kanpotik zetozten biztanle asko eta asko bigarren zatiaren inguruko etxeetan bizi ziren. *Ibid.*, 718. orr.

kultural, sozial, politiko, teknologiko eta ekonomikoa emango da. Bizitzeko erak pluralizatu eta aldatuko dira, Modernitatea ezartzen den heinean.

Komunikazio bideen harira, eta Gran Víarekin lotuz,, oso esanguratsua izango den publizitatearen espantsioa emango da. Oinarrizko produktuen prezioak jaisten dira, masa- kontsumoari bidea irekiz (eta honekin, masa- produkzioa). Publizitatea bizi pribatura ere sartuko da, eta kulturaren batez ere, aldaketa handiak ekarriko ditu; zineak bezala, eragin handiagoa izango duenak antzokien beherakadarekin⁴⁹. Etxekoandreaken irudia ezabatzen hasiko da, autonomia nahiarekin batera eta emakumeen soziabilizazio bide berriekin. Emakumea lan- munduan sartzen hasiko da (mekanografia eta telefonista ezala, asko eta asko. Azken kasuan, oso esanguratsua da *Edificio Telefonicaren* papera). Edertasun- kanon berriak ere ezarriko ditu ordea, bai emakume bai gizonezkoetan. Aldi berean, gizarte mailen arteko urruntasuna gutxiagotzen hasten da, nahiz eta paradoxikoki, bien arteko izua ere zabaltzen den.

Hitz gutxitan esanda, XX. mende osoan zehar egongo diren kontsumo- masen ezaugarriak ezartzen hasten dira aldi honetan eta Gran Vían denen adierazleak kontzentratzen dira.

3.1. Klase ertain urbanoa eta Espazioaren tertziarizazioa

Proiektuaren aurreko urteetan eremuaren izaera erresidentziala galdu nahi ez bazen ere, lehen eraikinekin Gran Vían tertziarizazioaren hasiera ikusi ahal zen⁵⁰. Honek eragin zuen bertako errentaren gorakada (*ikus 1. Koadroa*) eta egin ziren etxebizitza gutxiak luxuzkoak zirenez, kapa popularrak alde egin behar izan zuten⁵¹ ordezkorik izan gabe, bitartean klase honen hutsunean goi-sektoreak agertuz. Kanporatu zen klase xume horien opzio falta Zabalgunearen urbanizazio helburuaren porrota agerian uzten du. Gerturatu zen populazioa kapitaleko errentista eta komertzial handiak ziren, negozioak bertan zituztenak. Mahou y García semearen kasua dugu adibide.

Etxebizitza partikularrak baino, turismoa izan zen hiribide honen ikonoa hasieratik. Lehen bi eraikinak Ritz eta Palace Hotel izan ziren, París, Florida, Londres

⁴⁹ Hasieran antzokiak goi-klaseentzako ziren eta zinea klase xumeentzat. Hau aldatu egingo da, zineak "gizarte espainiarra isladatuko du" Walton J.K. (2003), 252.orr.

⁵⁰ Fernández de los Ríos, Á. L. (1984). "Gran Vía: Arquitectura y ciudad" in Navascués Palacio, P. *El edificio de la Telefónica*. Madrid, Espasa Calpe, 20-58. orr. 52.orr.

⁵¹ 10.000ko zifra 1.500era jaitsi zen. Díaz Simón, L. (2010). *El casco antiguo de Madrid a principios del siglo XX*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editorial, 94. orr.

eta abarrek jarraituko diete. Garrantzitsuena ordea, turismoaren zerbitzuen ejea mugitzen dela da. Lehen fokua Plaza del Sol zen bitartean, orain mugimendu progresibo bat ikus dezakegu iparralderantz. Eraikin hauek altuak ziren (bost pisu Hotel Romaren kasuan), eta nola ez, luxuaren errepresentatzaileak, prentsan ikusi ahal zen bezala; mediatikotasun handia bait zuten. Denborarekin, pluraltasuna nagusi izaten hasten da eta erdi mailako hotelak ere agertzen hasiko dira. Aterpetxe txiroagoak ere aurkitzen ditugu, zerbitzuetako langile eta abarrentzako⁵² egokiak zirenak.

Egia da hala ere, 1910-11an jada Madrileko Kasinoa eta Metrópolis bezalako eraikinak egin zirela. Espazio berriak elitearentzako eta helburu finantzioeratarako gorde ziren, Haussmannen Paris-a imitatuz. Azken batean, zentroaren berrikuntzaren nahia isladatzen zen burgesiaren eskutik. Aristokraziarentzat diren klub eta bestelakoak hemendik hedatzen dira, modernitatea erakutsiz. Merkatariak ere *Círculo de la Unión Mercantil e Industrial*-a zuten, 1919koa. Aisia pribatua da orain, kafeetatik klubetara igarotzean. Hauekin batera, terraza modernoan aurrekari izango direnak ere baditugu. Lehen aipatzen genuen europar haize edo *ukitu* horren adibide dugu *British American Club*-a. Bankaren etorrerarekin, oso esanguratsua izan zena eta merkatarien elitearekin lotua zegoena; aseguru enpresek ere sedeak Gran Vían ezartzen dituzte (estatal zein kanpotarrak). Ikusten da nola imitazioarako joera bat ematen den, Europako hirietako zona elitistak kopiatzen dielako (Rue de la Paix, Regent Street, Galleria Viitorio Emanuele II...).

Moda gizartean sartzen da tamainu handi batean, komertzio handiekin, elitearentzako zuzendua. Honekin batera harribitxien komertzioa dugu, baita auto eta kontzesionarioen merkatua.

Ezaugarri hauek lehen eta bigarren zaitetan aurkitzen ditugu, Guda Zibila baino lehenago eraikitzez amaituko direnak.

Conde de Peñalver, lehen zatia, trantsizio eremu bat bezala hartzen da askotan, XIX.mende amaierako “zentro”-aren ideiatik 20ko hamarkadako *city* edo metropolira gerturatzen dena. Eraikinek tipologia klasikoak edota europearragoak izango dituzte, modernitatea eta iragana lotuz; finantza, merkatal, turismo eta aisiaren ordezkari handienen azpian. Hotelek borobila ixten dute, klase berdinei zuzendua.

⁵² Baker, E. (2009), 78-83. orr.

Bigarren zatian, egungo Pi I Margall boulevardan, esentzia kosmopolitagoa gailendu zen, lehen zatiaren elitismoa atzean utziz. Jada ez da burgesiarekin loturarik emango, klase elitistaren itxiera horrek lekua uzten dio klaseen heterogeneotasun eta nahasmen horri. 1919an Gran Vía-ko metro geltokia jarriko da, biztanleriaren mugimendua erraztuz.

Lur-urbanoaren erabilera berri honekin argi geratzen da nola ikusten diren hiriburuko eta estatuko ente indartsuenak kale honetan islaturik, fisikoki. Europan ematen hari zen aldaketa arkitektonikoa Madrilera iristen da, bertikaltasuna horren ezaugarri handiena izanik⁵³. Ikur bat den CTNE (*Compañía Telefónica Nacional de España*) irekiko da 1924an. Merkatu-estruturaren berri baten ezartzea markatuko du, bai eta sektorearen internalizazioa (ITT amerikarrarenpean zegoen Telefónica⁵⁴). Gaur egun, Inditex bezalako marken ikur den hirien barnean enpresak edukitzen duen kokalekua estrategiarekin lotzen hasten da. Hiriaren ikus edo ezaugarri diren espazioak enpresek okupatu eta beraien balorea hartzen dute. Beste hitzetan esanda: botere ekonomiko eta enpresarialak hiriko leku sinbolikoak hartzen dituzte, espazio ekonomikoarekin nahastuz.

Ekonomia urbanoa modernizatzen hasten da berrikuntza guzti hauekin: kaleen urbanizazioa, aisialdiaren zabaltzea, azpiegituren orokortzea, komunikazio bideen hobetzeak, heterogeneotasun berri hori bai gizarte eta orokorrean... Hala ere, ezin da esan hiri tradizionalarekin erabateko haustura ematen denik. Bi modelo antagoniko hauek batera biziko dira, uniformetasunerantz, XX. mendeko Madrilgo hiriburuan.

4.2. II. Errepublika eta Guda Zibila.

20ko hamarkadan azelerazio argi bat aurkitzen dugu bada, baita II. Errepublikan ere. Sindikatu errepublikar eta sozialistekin gorakadarekin, eta hauek korporazio handietan sartzean, politikaren aldaketa bat emango da. Atzean geratuko dira Berrezarpenaren garaiko jarrera kazikista horiek⁵⁵. Politika sozializatu egiten da, ireki. Proletarizazioa ematen da gutxinaka, patronato eta langileen arteko taldeen edo batzarren bidez. Ekonomia urbanoa dinamizatu egiten da bestetik, tertziarizazio horrek

⁵³ Bahamonde, Á., Martínez Lorente, G., Otero Carvajal, L. E. (1993). *Las Comunicaciones en la construcción del Estado Contemporáneo en España, 1700- 1936*. Madrid, Ministerio de Obras Públicas, Transporte y Medio Ambiente, 89. orr.

⁵⁴ Otero Carvajal, L.E., Pallol Trigueros, R. (2010), 579. orr.

⁵⁵ Pallol Trigueros, R. (2009). *El Madrid Moderno: Chamberí (El Ensanche Norte), símbolo del nacimiento de una nueva capital, 1860-1931*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid, 584. orr.

enplegu- poltsa bat sortu zuen gorakada ekonomikoak lagunduta, langile horien helburu batzuk lortzen joaten diren heinean.

Bigarren Errepublikan orokorrean, baita aurretiko urte batzuetatik, merkatal erritmoa handitu egin zen, obrak amaitzear zeuden eta Gran Víaren bigarren zatian jada suspertsio indizeak agertzen ziren⁵⁶. Tertziarizazio horrek sortutako dinamikaren ezaugarriak ikus daitezke. Komertzio handiak dira, zerbitzuak eskaintzen dituztenak, eta normalitate baten barruan nahiz eta egoera politikoa oso desegonkorra izan. 1936an adibidez, Carlos Fraudo hilko dute falangistek hiribidean. Hemendik pasako ziren erresistentziako lehen gizonak.

Izenaren gaineko aldaketa asko eman ziren: Guda Zibila hasi baino hiru hilabete lehenago, Gran Víaren lehen bi zatiak CNT-ren Etorbidea izatera pasa ziren. Guda Zibila hastean, Errusiako Etorbidea, 1937ko azaroan berriz aldatuko dena Sobietar Batasunaren Hiribidearengatik. Urte berean, Eduardo Datoren ordezkari Mexikoko Hiribidea deituko da. Horiek izango dira izen ofizialak, baina izen herrikoiekin ere ezaguna zen: *Avenida de los obuses, Avenida del quince y medio...* biak falangearen metraiari erreferentzia egiten diote.

Metropolia erasotua izango da behin eta berriz gudan, batetik sinbolikoa zelako eta bestetik, Gudari amaiera emateko beharrezkoa zelako hura edukitzea. Garaileak Madril hartu beharra zuen. Hego-ekialdetik Varela Yagüe generalaren tropak ezarri ziren, 1936an *Casa de Campon* kokatzen duguna, Gran Vía etorbidearen eje pare-parean. Ibaiarekiko paraleloki, falangeak hainbat eraso egiten ditu, erretaguardia aurreratuz Espainiako Plaza aldera. Aldaketa izugarria izango da, bai sozialki bai fisikoki: barrikadak, parapetoak, eguneroko erasoak... Falangistek Telefonikako eraikina hartuko dute, beha-toki militar moduan erabiltzeko⁵⁷. Enklabe oso garrantzitsua da, 1936an

Gran Vía. Militarki komunikazio bide batean ikusten dugu, eta azkenik Lluch-ek Madrilgo defentsa planteatuko du. Zonalde erasotuenak Argüelles (%80a kaltetua guda amaieran) eta zentroa izan ziren. Eraso anitzek hiribidearen banaketa bat suposatzen du, hirugarren sektorearen eraikitzea amaitua ez dagoenean, gainera.

⁵⁶ Baker, E. (2009), 43. orr.

⁵⁷ Otero Carvajal L. E., Pallol Trigueros, R. (2010). "El Madrid moderno, Capital de una España en transformación (1860-1931) in *Historia Contemporánea* (39), 541-588. orr. 579. orr.

Franco gobernuan, 1939 apirilaren 24an José Antonio izena erabiltzen da kale eta metro geltokirako, Falangeko sortzailearen omenean. 1981arte ez da aldatuko, Enrique Tierno Galván boterean zegoenean, beste 26 kaleekin batera; Gran Vía izatera bueltatu zen.

Gran Víaren azken zatiaren gainean esan, eraikin gehienak 39/40 eta 50ko hamarkadetan eraiki zirela. Ordura arte, soilgune batzuk egongo dira, edifikatu gabekoak. Hutsune horiek Guda Zibilak Madrilgo dinamikotasuna geldituko duelako emango dira. Guda amaitzean gobernuak eraikitze asko onartuko ditu, sektorea bultzatzeko. Proiektuak nahiko garestiak izango dira. Eraikin modernoak bilatzen dira: turismoan eskaparate baten moduan aurkeztuko ditu, hiri dinamiko, puntero bat bezala erakutsi nahi zen: Modu batera, New York txiki baten modura aurkeztu izan zen. Madrid masa- turismora irekitzen da ofizialki.

Ia 40 urte itxaron beharko da Gran Vía bat, osoa, unifikatua eta amaitua ikusteko. Estilo moderno horrekin bada ere, arrazionalista kutsukoa izango da nagusiagoda. Eklektizistak hasierakoak izango dira⁵⁸. 50eko hamarkadatik aurrera, turismoaren sarrera horrekin hotelak hedatzen dira, bai eta kafe, taberna, festa-lokalak...

Obrek enplegua eman zuten, desamortizazioekin paraleloki. Madozenak, probintzietan, hiriburura jende gehiago ekarriko du, hiriburuak hauek behar dituen momentu berean. Hiriko populazioaren hazkunde begetatibo negatiboa pairatzeko balio izan zuen, eta bide batez Madrilen irekierara bidea irekitzeko, Castro planarekin. honela, 1868tik eraikitze indizeak altu mantentzen dira, garai isabelinokoak baina altuagoak. Adibide bezala, 1882ko 500 lizentziak ditugu. Zabalguneko garaietako irabaziek eragindako konfidantzak inbertsoreen gainean eragingo du, batez ere industria, komertzio eta negozioen kasuetan ikusten dena, edo errentara bideratutako eraikinetan. Azken hauek, higiezin arlokoak, emango dio Madrili espantsiorako azken bultzada.

⁵⁸ Palomeque Ruíz, E. (1977). "El trazado de la Gran Vía como transformación de un paisaje urbano" in *Annales del Instituto de los estudios madrileños* (14), 347- 358. orr. 354. orr.

4. Konklusioak

1850. hamarkadan aldaketa esanguratsuak eman ziren: trena, Isabel II.aren Kanalak, *Puerta del Soleko* erreforma, kilometro zeroa eta honen sinbologia... Azken honetan Madril estatuaren epizentro bezala ezartzen da, hiriburuaren zentroa da (logikoena da udaletxeko enparantza izatea). Hemen ezarriko dira hiriaren sinbologia islatzen duten eraikin eta obrak udalarekin lotura dutenak dira, ez estatuarenak. Bi mailatako zentralizazioa dugu hemen, beraz.

Obrek eta desamortizazioek ekonomia dinamizatuko dute, eta migrazioek hazkunde negatiboa positiboan bilakatuko dute. Castro planarekin hau indartzen da, inbertsoreen segurtasuna handituz. Elitea zabalgunera joango da bizitzera: bien arteko espazioa murriztu egiten dute garraioek, errenta-etxearen kalitatearen arteko erlazio orekatuagoa, higiene hobetua eta estratifikazio espazialaren ondorioz, bakoitzak bere espazioa zuen eremuan, gainera. Iparraldean klaseen arteko ezberdintasuna gutxiagotu zen, ekialdean klase ertaina ere bazegoen (ertain-altua, zehatzago). Hegoaldean ordea, segregazioak beste modu bateko egoerak eragin zituen: hiri barneko komunikazio bideak eta zerbitzuak ez ziren nahikoa hegoaldeko populazioarentzat, hiriaren osotasunarentzat.

Klase ertainetatik hasita, bizilekuaren lokalizazioa erabakitzeke ahalmena zuten. Honek esan nahi duena da hiri barnean, mugimendu urbanoak aski erraz egiten zituztela.

Segregazio hori gainera gaur egun ere ikus dezakegu. Salamanca, Chamartín auzoarekin batera, hiri -eta estatuko- BIP handienak edukitzeaz gainera, lehenak hiriko langabezi tasa txikiena du. Immigrazioarekin argi ikus dezakegu segregazioa gaur egun. La Latina, Lavapiés eta Embajadores bezalako auzoetan -hegoaldean- immigrazio tasa handienak aurkitzen ditugu, afrikarrak gehienak. Honela, *camas calientes* bezalako fenomenoak agertzen dira, biztanleriaren metaketa dela eta. Iparraldeko zitaturako auzo horietan eta La Castellano erroan, immigrante horiek europarrak edo estatubatuarrek dira, goi- mailako langileak (eremu honetan daude enbajadak, ofizina handiak...). Lanean azaldu dugun fenomeno bat errepikatzen da gaur egun auzo hauetan; etxeko- zerbitzuarena. Egia da klasearekin lotura handiagoa izango duela jatorriarekin baino, nahiz eta biak zerikusia izan.

Ezaugarri hauek egun fenomeno bitxi batzuk eragin dituzte, eremuko hirugarren sektoreko espezializazioa kulturaren arabera. Lavapiés litzateke esanguratsuena taberna eta ostalaritzan.

XIX-XX. mende-aldaketan, mugimendu urbanoak garatzen dira. Honek ordea ez du suposatuko bizilekuen aldaketa (klase ertainetan eta altuetan). Denbora murriztu zuten garraio-bideak ehdatu ziren, eta hirian zehar ibiltzeko aproposak izan ziren. Metroak iraultza bat suposatuko du hiri barnean. Distantzia eta denbora murrizten dira. Hegoaldean ordea, bizi ziren eremuan zuten fabrika. Gehienez ere iparraldeko biztanleria fokuek zentroaldera jotzen zuten noizean behin. Kanpoaldekoak, kanpoalderago. Mugimendu kontzentriko bat da.

Gaur egun hiri barneko mugimenduak biderkatu egiten da. Eguneroko mugimendu-motak hedatu dira, distantzia eta motetan. Zerbitzu publikoak biderkatzen eta hedatu dira, azkarrago eta erregularitasun handiagoarekin, merkeagoak dira gainera. Denbora eta espazio kontzeptuk zeharo aldatu dira. Gainera, *auto city* garaian, hiria kotxerako prestatu izanak zabalgunek kanpoko espazioak gertuagotzen ditu (*Gran Madrid*). Zentroa eta zabalgunea bateratuak daude osoki, hiri barneko garraio-sistemearekin. Gaur egun zentroa peatonalizatzearen joera bat ematen da. Gran Vía-ren kasuan, eta hau zentro guztira extrapolatu ahal da, oinezkoen eremua biderkatu egiten da. Zerbitzuen gorakadarekin erlazio zuzena du honek, dudarik gabe.

Ekonomiaren aldetik, XIX. mendean dinamizazioa eta gorakada higiezinaren sektoretik etorriko da. Gainera, estatuaren hiriburu bezala, bizi kulturala indartzen hasiko da.

1905ean beraz, hiri protoindustrial eta metropoli berriaren arteko trantsizioaren hasiera ematen da. Siegrist autoreak argi azaltzen du prozesua: progresuaren ideia txertatzean, gorakada bat ematen da honen inguruan. Honela, hezkuntzaren sistematizazioa ematen da, liberalismoak duen oinarrizko meritokrazia sisteman oinarritua. Estatu modernoan espantsioan sartzen da, kultura nazionalizatuz gizartearekin batera. Kapital kulturaren beharra handiagotzen da ondorioz, eta hezkuntza liberal hori jaso dutenen eskaria sektore profesionalengandik.

Lehen zegoen hezkuntza eta estatuaren arteko lotura fina sendotu egiten da, langileriaren gehiengoa aurretiko ikastaro batekin prestatzen zen. Denborarekin,

hautatutako modelo berriek arrakasta izango dute modelo burgesaren barruan. Garrantzia handiagoa edukiko dute behar berriei erantzuten dietelako (medikuak higienaren gainean, ingenerioek eta mekanikoek progresuaren aldeko paperarengatik - eta urbanizazioarekin batera-...) ⁵⁹. Prentsaren gorakadak bideak irekiko dizkio (gehienetan) progresu honi.

Bestetik, aipatu beharko litzateke nobleziak eta estatuko langileek izandako papera, bai estruktura sozial bai ekonomikoan. Sektore publikoak bere funtzioak gehiagotu zituen: Berrezarkuntza honegatik da ezaguna, administrazio estatala hedatu egiten da (hezkuntza adibidez, oso zentralizatua egongo dena baina aldi berean hedatzen dena). Estatuaren lidertza zuenez ekonomian ere aurrerakoia izateko beharra zuen hiriburuak. Denboran aurrera konplexuagoa bilakatu zen, eta bide askotara bideratua.

1910eko azelerazioarekin, guzti hori bizi urbanoan isladatzen da. Gran Víaren kasuan, frenetikotasun, dinamismo, modernizidadearen... sinbolo bezala ezartzen da, ukitu klasistekin, hiriaren segregazio jada naturalari jarraiki. Hala ere ez dugu ahaztu behar eremu tertziarizatua dela, eta korrante urbanista europear batzuekin dituen *simil*-ak kontuan izan behar ditugu. Hiribide burges bezala ikusi behar dugu. Demografiaren gorakadak hau islatuko du bizi publikoan, aisialdia, komunikabide eta bestelakoen bitartez.

Egun, bere identitatea gorde du Gran Víak. Hiriburuko sinbolikotasunaren balioa erakusten digu: tertziarizazioa handitu egin da, enpresa handien eta multinazionalen presentzia bertan ikus dezakegu fisikoki. Egun, enpresek lekua utzi diote lekua zerbitzu komertzialei. Adibidez, Telefonikako eraikina nahiz eta funtzio berberak ez izan, sinbolo bilakatu da, baina Primark, Inditex... bezalako komertzio handiak dira irudi berria. Honek eragingo du aldi berean komertzio txikiaren desagerpena, hosteleritzara orain hedatzen hari den fenomeno. Turismoaren kasuan hedatu egiten dira hare gehiago, antzoki eta zineak gutxiagotzen diren bitartean.

⁵⁹ De Miguel Salanova, S. (2015), 378. orr.

5. Bibliografía

- Bahamonde Magro, Á., Otero Carvajal, L. E. (1989), "Quietud y cambio en el Madrid de la Restauración". in *La sociedad madrileña durante la Restauración, 1876-1931* (21-28. orr.). Madrid, Comunidad de Madrid.
- Bahamonde Magro, Á., Toro Mérida, J. (1998). *Burguesía, especulación y cuestión social en el Madrid del siglo XIX*. Madrid, Siglo XXI de España.
- Bahamonde Magro, Á., Martínez Lorente, G., Otero Carvajal, L. E. (1993). "Las comunicaciones en la construcción del Estado Contemporáneo en España, 1700-1936". *Revista de Historia industrial* (13), 59-81. orr.
- Baker, E. (2009). *Madrid Cosmopolita, La Gran Vía 1910-1936*. Madrid, Marcial Pons Ediciones.
- Calvo, Á; "El teléfono en España antes de Telefónica 1877-1924"; *Revista de Historia industrial* (13), 1998; 59-81. orr.
- Carballo Barral, B. (2015). *El Ensanche Este, Salamanca- Retiro 1960-1931: El Madrid burgués*. Madrid, Catarata.
- Carballo, B., Rubén, P., Vicente, F. (2008). *El Ensanche de Madrid: Historia de una capital*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editorial.
- De Miguel Salanova, S. (2015). *Madrid, los retos de la modernidad: transformación urbana y cambio social (1860-1931)*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editorial.
- Díez de Baldeón García, A. (1993). Argüelles: el nacimiento de un barrio burgués. XIII. *Norba Arte* (13), 231- 269. orr.
- Díaz Simón, L. (2010). *El casco antiguo de Madrid a principios del siglo XX*. Madrid, Unibersidad Complutense Editorial.
- Fernández de los Ríos, Ángel Luis (1984), "Gran Vía: Arquitectura y ciudad" in Navascués Palacio, P. *El edificio de la Telefónica*; Madrid, Espasa Calpe, 20-58 orr.
- Fontana, J. (1985). "La Desamortización de Mendizabal y sus antecedentes", *Historia agraria de la España Contemporánea I. Cambio social y nuevas formas de propiedad*. Barcelona, Crítica.
- Juez Gonzalo, E. P. (. (2002). *El mundo social de los ferrocarriles españoles de 1857 a 1917*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editorial.
- Jurado, J. J. (2010). *La Gran Vía de Madrid: Cien años de Historia. Madrid's Gran Vía, A Century of History*. Madrid, Alymar Ediciones.
- Martínez Alfaro, P. E. (1977). "Historia del abastecimiento de aguas a Madrid: El papel de las aguas subterráneas. *Annales Instituto de Estudios Madrileños* (14), 29-51. orr.
- Maure, L. P. (1985). *Secundino Zuazo. La arquitectura y el urbanismo en España en el primer tercio del siglo XX*. Madrid, Universidad Politécnica de Madrid.
- Moreno Ballesteros, V. (2015). *La Desamortización de Madoz en Madrid: Capital y provincia (1855-1894)*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid Editorial.

Otero Carbajal, L. E., Pallol Trigueros, R. (2010). "El Madrid moderno, capital de una España urbana en transformación, 1860-1931". *Historia Contemporánea* (39), 541- 588. orr.

Otero Carvajal, L. E. (2015). "La Sociedad urbana en España. Madrid vanguardia de la Modernidad" in Beascoechea Gangoiti, J.M., L.E. Otero, *Las nuevas clases medias urbanas. Transformación y cambio social en España, 1900- 1936*, 15-38. orr. Madrid, Los Libros de la Catarata.

Oyón, J.L., Serra Pemanyer, M. (2010). "El espacio no es inocente", *Historia Contemporánea* (39), 387-401. orr.


Palomeque Ruíz, E. (1976). *Ordenación y transformaciones urbanas del casco antiguo madrileño durante los siglos XIX y XX*. Madrid. Instituto de Estudios madrileños.

Palomeque, E. (1977). El trazado de la Gran Vía como transformación de un paisaje urbano. *Annales del Instituto de Estudios Madrileños* (14), 347-358.orr.

Pallol Trigueros, R. (2009). *El Madrid Moderno: Chamberí (El Ensanche Norte), símbolo del nacimiento de una nueva capital, 1860-1931*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid.


6. Anexoa

1.Irudia. Iparraldeko Zabalgunearen Castroren banaketa.



Iturria: Pallol Trigueros, R. (2011); *El Madrid moderno: Chamberí (el Ensanche Norte), símbolo del nacimiento de una nueva capital, 1860-1931*; Madrid, Universidad Complutense de Madrid.

2.Irudia. Banaketa orokorra eta Ekialdekoa.




Leienda:

1. Barrio aristocrático de la Castellana	7. Cerca de Madrid
2. Carretera de Aragón	8. Línea de Circunvalación
3. Carretera de Valencia	9. Carretera de Castilla y Galicia
4. Estación del Mediodía	10. Carretera Mala de Francia
5. Carretera de Toledo	11. Foso de Ensanche
6. Carretera de Extremadura	

Iturria: Carballo Barral, B. (2015); *El Ensanche Este, Salamanca-Retiro 1960-1931: El Madrid Burgués*. Madrid. Catarata. 61. orr.


3.Irudia. 1877ko Hegoaldeko Zabalgunea.

Proyecto de Ensanche Sur (1860)



Iturria: Vicente Albarrán, F. (2011); *Los barrios negros: el Ensanche Sur en la formación del nuevo Madrid 1860-1931*; Madrid, Universidad Complutense de Madrid. 77. orr.

4.Irudia. Biztanleria-zentroak hegoaldean.



Iturria: Vicente Albarrán, F. (2009); *El presagio de un nuevo Madrid. El ensanche sur 1860-1978. Cuadernos de Historia Contemporánea (39)*, 249-264. orr. 258. orr.
Legenda: 1) Geldiguneak; 2) Toledoko zubia; 3) Gas-fabrika eta barniadak; 4) Peñuelas; 5) Atocha; 6) Docks-ak; 7) Palos de Moguer

1.Koadroa. Gran Vía ko errenta, segregazio bertikala. 1930.

Alquileres de los pisos de la Gran Vía por alturas (ptas anuales, 1930)			
Piso	Conde de Peñalver	Pi i Margall	Eduardo Dato
Entresuelo	11.249,96	9.594,77	10.920
Principal	14.867,39	10.261,13	8.049,71
Primero	9.603,83	10.788,48	4.338,71
Segundo	7.387,58	11.309,25	7.690
Tercero	5.095,75	11.220,92	5.578
Cuarto	4.411,99	12.026,17	8.986
Aticos	3.660	13.216,48	12.975

Iturria: De Miguel Salanova, S.;(2015). Madrid, los retos de la modernidad: transformación urbana y cambio social (1860-1931). Madrid, Universidad Complutense de Madrid Ediciones. 237. orr.

2.Koadroa. Ekialdeko kaleen arteko etxe-zerbitzuaren banaketa, 1878.

Cuadro 41. FRANJA URBANA LINDANTE AL EJE RECOLETOS- CASTELLANA									
Concentración de población y distribución del servicio doméstico por calles (1878)									
CALLES	Alquiler mensual (ptas.)	Habitantes	%	Familias	%	Miembros por hogar	Servicio Doméstico	%	Miembros del servicio doméstico por hogar
Alcalá	230,87	387	16,35	68	15,70	5,69	112	17,55	1,65
Pº de Recoletos	170,44	308	13,01	53	12,24	5,81	87	13,64	1,64
Pº de la Castellana	164,87	163	6,89	32	7,39	5,09	47	7,37	1,47
Marqués del Duero	158,16	118	4,99	21	4,85	5,62	46	7,21	2,19
Villalar	150,40	102	4,31	18	4,16	5,67	24	3,76	1,33
Recoletos	149,50	645	27,25	112	25,87	5,76	147	23,04	1,31
Olózaga	143,58	375	15,84	73	16,86	5,14	110	17,24	1,51
Villanueva	120,57	166	7,01	27	6,24	6,15	53	8,31	1,96
Cid	77,00	72	3,04	20	4,62	3,60	8	1,25	0,40
Santibáñez	65,94	31	1,31	9	2,08	3,44	4	0,63	0,44
TOTAL	161,36	2.367	100	433	100	5,47	638	100	1,47

Iturria: Carballo Barral, B. (2015); *Los orígenes del Moderno Madrid: El Ensanche Este (1860-1878)*, Madrid, Unviersidad Complutense de Madrid. 234. orr.